

KIROL CAMPUSA euskaraz – 2019

OINARRIZKO IRIZPIDEAK

- A. **Gehienez ere 100 neska-mutiko** hartuko dira, kirol instalazioen espazio fisikoak ez du-eta biderik ematen kopuru horretatik gora.
- B. Kirol Campusa antolatzen hasteko arrazoia hau izan zen: udaldian etxean euskaraz egiterik ez duten umeei (gurasoek ez dakitelako) laguntzea ikasturtea hasi aurretik. Beraz, 100 umek baino gehiagok emango balu izena, **guraso euskaldunik ez daukaten umeeek izango dute lehentasuna. Itxaroteko zerrenda eratzeko zozketa** egingo da.
- C. Onartuen zerrendetan lehentasuna izango dute Amorebieta-Etxanon erroldatuek.

INFORMAZIO OROKORRA

- 1.- NORENTZAT: LHko ikasleentzat, 2008-2013 (biak barne) urteen artean jaiotakoentzat.
- 2.- AMETX TXARTELA *Ume Txartela* bezala aktibatuta izatea derrigorrezkoa da IZENA EMATEKO.
- 3.- NOIZ: irailaren 2tik 6ra.
ORDUTEGIA: 09:30etik 14:00etara.
- 4.- IZENA EMATEKO EPEA: ekainaren 5etik 19ra (biak barne), Gazte Informazio bulegoan. Ordutegia: 10:00-13:00 eta 17:00-20:00.
- 5.- ORDAINKETA kreditu-txartelarekin egingo da, onartuen behin betiko zerrendak argitaratu ostean, ezartzen den epean.
- 6.- PREZIOA: 35 €
Familia unitate bereko bigarren kideak %20ko deskontua izango du.
Familia unitate bereko hirugarren kideak %30eko deskontua izango du.
Hobariak: Prezio publikoak arautzen dituen ordenantzan jasotakoaren arabera, zerbitzuak eman edo udal jarduerak burutzeagatik.
- 7.- MATRIKULA ITZULTZEA. Izena emateko epea amaituta ez da dirurik itzuliko, baldin eta honako egoeretako bat ez bada:
 - a) Gaixotasun edo istripu larria (mediku-ziurtagiria aurkeztu beharko da).
 - b) Kirol Campusera etortzea eragozten duen ustekabe edo beharrian larria (beti ere, idatziz eskatuta eta dagozkion dokumentuak aurkeztuta).

Behin Kirol Campusa hasita, matrikula ez da itzuliko.

- 8.- Kirol Campusaren jarduerak udal kirol eta kultura egoitzetan burutuko dira.
- 9.- INFORMAZIOA BATZARRA. Ekainaren 27an izango da, arratsaldeko 18:00etan, Zelaieta zentroko auditoriumean. Bertan, campusari buruzko xehetasun guztiak emango dira.
- 10.- Deialdi honetan ematen diren informazioa eta datu pertsonalak abenduaren 13ko 15/1999 Legean, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzkoan, ezarritakoaren arabera erabiliko dira.